

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

**Duranako eta Vitoria-Gasteizko zenbait zerbitzutara joateko zerbitzu publikoko edo enpresa pribatuko ibilgailuak gidari eta guzti kontratatzeke dirulaguntzen deialdiaren laburpena**

BDNS (Identif.): 887140.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/887140>.

#### **DURANAKO ETA VITORIA-GASTEIZKO ZENBAIT ZERBITZUTARA JOATEKO ZERBITZU PUBLIKOKO EDO ENPRESA PRIBATUKO IBILGAILUAK GIDARI ETA GUZTI KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN LABURPENA**

Alkatearen otsailaren 12ko 37/2026 Ebazpena, zeinaren bidez Duranako eta Vitoria-Gasteizko zenbait zerbitzutara joateko zerbitzu publikoko edo enpresa pribatuko ibilgailuak gidari eta guzti kontratatzeke dirulaguntzetarako deia egiten baita.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: [www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Onuradunak izango dira ibilgailurik ez daukaten edo aldi baterako gidatzeko ezinduta dauden pertsonak, baldin eta 2. artikuluan adierazitako zerbitzuetako hitzorduetara joateko eta itzultzeko autobus linearik ez badute. Udallerriaren erroldatuta egon beharko dute, gutxienez urtebete lehenagotik, eta Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin dituzten zerga betebeharrak egunean eduki beharko dituzte dirulaguntzaren behin betiko ebazpena eman arte. Ondorio horietarako, zuzenbide publikoko diru sarreretatik eratorritako edozein zor hartuko da kontuan, salbu eta geroratuta, zatikatuta edo etenda dauden zorrak edo zehapenak. Eginbehar hori adin txikikoen edo legez ezgaitutako pertsonen tutoretza daukaten pertsoneri ere aplikatzen zaie. Bi betebeharrak eskaerak ebatzi arte bete behar dira.

#### **Bigarrena. Xedea**

Diruz lagundu ahal izango da Duranako osasun zentroaren, Arratzua-Ubarrundiako Udalaren eta Osakidetzaren eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Vitoria-Gasteizko kontsulta ordutegian zerbitzu publikoko edo enpresa pribatuko ibilgailu bat gidari eta guzti kontratatzeagatik sortutako gastua, bai eta izapide mediko-sanitarioak edo era guztietako administrazio kudeaketak egiteko Vitoria-Gasteizera egindako joan-etorriak ere.

Gehienez, lau bidaia/ibilbide lagunduko dira diruz pertsona eta hileko.

Bidaiaren/ibilbidearen jatorria edo helmuga udalerriko herrietako bat eta Durana edo Vitoria-Gasteiz izan behar dira.

Ibilgailua pertsona batek baino gehiagok partekatzen badute, haietako bati baino ez zaio diruz lagunduko kostua.

**Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileen aldaketa Udalbatzaren 2025eko otsailaren 26ko bilkuran onetsi zen eta 2025eko apirilaren 11ko ALHAOn argitaratu (42/2025 zenbakia).

**Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa**

Dirulaguntzak egindako gastuaren ehuneko 60koak izango dira.

**Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskatzaileek eskaera bana aurkeztu beharko dute hilero, egindako bidaien/ibilbideen zerrendarekin.

**Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak**

Enpresaren faktura edo harekin pareka daitekeen tiketa, egindako ibilbidearen eguna, ordua eta jatorria eta helmuga jasotzen dituenak.

Hitzordura joan izanaren frogagiria.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Durana, 2026ko otsailaren 12a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*